



6. Gaia. Prosodia

6. Gaia

Prosodia



Mendiguren, Terese; Agirreazkuenaga, Irati; Marauri, Iñigo. OCW INFORMAZIO LOKUZIOA 2021

Definizioa: Hizketaren tonu, intentsitate eta iraupen aldaketak dira, zeinek melodia bat, azentu-markak eta erritmo-patroiak marrazten dituzte, diskurtsoari zentzua emanaz.

Hare gehiago, hitzak edo hizkuntza ulertu barik, mezu baten ñabardura edo intentzioa, emozioak edo sentimenduak ulertzera laguntzen digun ahots ezaugarrien multzoa da.

Ezaugarri prosodikoak

- Entonazioa
- Azentua
- Erritmoa

1. Entonazioa

Hitzen musika da, testuaren soinu dimentsioa garraiatzen duen melodia, baina baita: mezuaren ironia edota beste konnotazioak lortzen duen dimentsio semantikoa; hizlariaren emozioak transmititzen dituen informazio estetikoa.

Armand Balsebre

(Rodero, 2003: 145)

Tonu mailak:

Albiste bat esatean, mezuak eskatzen duen zama emozionalaren arabera, batez besteko tonu-maila altuagoa edo bazuagoa izan daiteke:

- Goi soinua
- Ertaina
- Behe-soinua

Tonemak: Ahotsaren bukaerako tonu inflexioak. Esaldiaren erdian daudenean hari-eroale funtzioa betetzen dute. Geziekin irudikatu ohi dira

Talde fonikoa: Entonazio-unitate berdinean daudem hitzen sekuentzia edo multzo akustikoa. Ez dira beti etenaldiekin bereizten. Esaldi batek talde foniko bat baino gehiago izan ditzake

Adibidez (bi talde foniko): Tokiko albistegia(↑) izugarri gustatzen zait (↓).

Tonema motak:

- Kadentzia (↓): Esaldi baten erabateko amaiera da. Tonuaren jaitsiera handiena.
- Antikadentzia (↑): Kadentziaren kontrara, tonu igoerarik handiena da. Esaldia amaitu gabe uzten du, edo galdera adierazten du, edo iragarpena egiten du (segituan datu zirrargarri bat datorrela adieraziz).
- Suspensioa (→): Esaldiaren batz besteko tonu berberan bukatzen da.

- Erdikadentzia (↘): Kadentzia bezain erradikala ez den jaitsiera da. Esaldiaren barruan egon ohi da.
- Erdiantikadentzia (↗): Igoera tonala da, baina ez antikadentziarena bezain altua. Talde fonikoen arteko lotura gisa jokatzen du.

Adibidez: "Celestino Romerak (↘), Lan eta Inmigrazio Ministrariak (↗), langabeziaren datuen igoera (↗) iragarri du(↘)."

Azentua: Silaba jakin bat nabarmentzea helburu duen ezaugarri prosodikoa da.

Azentua ezaugarri prosodiko gisa: Silaba jakin bat nabarmentzeaz gain, hitz zehatz bat nabarmentzen du esaldiaren gainerako hitzen aldean, tonuaren, iraupenaren eta intentsitatearen aldaera prosodikoen bidez.

Aneri eman diodan oparia hartzeko eskatu dizut

Aneri **eman** diodan oparia hartzeko eskatu dizut

Aneri eman **diodan** oparia hartzeko eskatu dizut

Aneri eman diodan **oparia** hartzeko eskatu dizut

Aneri eman diodan oparia **hartzeko** eskatu dizut

Aneri eman diodan oparia hartzeko **eskatu dizut**

Erritmoa

“Ahozko mezuaren iraupen aldaketen emaitza da. Erritmoak diskurtsoaren ulermenean eragiten du eta testuaren datuen garrantzia agerian uzten ditu. Arreta berreskuratu eta mezuaren esanahia zehazten duten sentrazio psikologikoak eragiten ditu entzulearengan”.

(Rodero, 2003: 195)